

ETXEAN GERATU

Egizu zugatik, zure familiagatik, zure aitite-amamengatik, herri osoagatik. **Osasun krisi honi aurre egiteko armarik indartsuena zu zara.** Horixe da agintari eskudun guztiek helarazten diguten mezu argi eta zehatza, eta Leioako Udala etengabeko koordinazioan dihardu eurekin.

Osasun publikoaren ezohiko krisi honen aurrean, Leioako Udalak leioaztar bakoitzaren erantzukizuna eskatzen du, **komunitate osoarekiko erantzukizunez jokatzeko deia** egiten du. Errespetatu ditzagun Eusko Jaurlaritzak eta agintari eskudunek helarazitako oharra, lagundu dezagun horiek zabaltzen, eta ez diezaiegun oihartzunik eman iturri ofizialetatik ez datozen mezu edo informazioei.

Halaber, leioaztar bakoitzaren zentzu zibikoari dei egiten diogu, beren adinagatik, osasun-egoeragatik edo bakardade-egoeragatik, aparteko egoera honetan, **ahulenak diren pertsona guztiak babesten** laguntzeko. Zuen atarian horrelako kasurik egon daitekeela badakizue, zera eskatzen dizuegu: arazo larriren bat izan dezaketen susmorik txikiena izanez gero, **Udaltzaingorekin** harremanetan jarri (**944 008 021**).

Udalak aldizkako harremana izango du gure datu baseetan jasota dauzkagun pertsona bereziki ahulekin, behar duten laguntza guztia eskaini eta haien eskura jartzeko.

Gutariko bakoitzak, banaka, ekarpen handia egin dezake. Kate bat osatzen dugu, eta katebegi bakoitzak ezinbesteko garrantzia dauka. **Elkarrekin indartsuagoak izango gara.**

ETXEAN GERATU ETA JARRAITU AGINTARIEN AGINDUAK.

Leioan, 2020ko martxoaren 15ean

PERMANECE EN TU DOMICILIO

Hazlo por ti, por tu familia, por tus aïtes y amamas, por todo el pueblo. **Eres el arma más potente para hacer frente a esta crisis sanitaria.** Ese es el mensaje, claro y conciso, que nos están trasladando todas las autoridades competentes con las que el Ayuntamiento de Leioa está en permanente coordinación.

Ante esta crisis excepcional de salud pública, desde el Ayuntamiento de Leioa hacemos un llamamiento la responsabilidad de cada leioaztarra, y a que actúe, asimismo, de manera **corresponsable para con toda la comunidad.** Respetemos y ayudemos a difundir, en todo momento, las indicaciones trasladadas por el Gobierno Vasco y las autoridades competentes, y evitemos dar difusión a mensajes o informaciones que no provengan de fuentes oficiales.

Asimismo, apelamos al sentido cívico de cada leioaztarra para ayudarnos a **proteger a todas aquellas personas** que, por su edad avanzada, estado de salud o situación de soledad, sean **más vulnerables** en esta coyuntura excepcional. Si en vuestro portal tenéis conocimiento de que puedan darse este tipo de casos, os pedimos que, al menor indicio de que puedan estar padeciendo algún tipo de problema grave, os pongáis en contacto con la **Policía Local (944 008 021).**

Desde el Ayuntamiento, **mantendremos un contacto periódico con las personas especialmente vulnerables que consten en nuestros registros** para ofrecer y poner a su disposición toda la ayuda que sea necesaria.

Tenemos muchísimo que aportar de manera individual, formamos una cadena en la que cada eslabón es de vital importancia. **Juntas, juntos, seremos más fuertes.**

QUÉDATE EN CASA Y SIGUE LAS INSTRUCCIONES DE LAS AUTORIDADES

En Leioa, a 15 de marzo de 2020